

Sasi guztien gaineratik  
eta inoren azpitik ez!



MARTXOAK 8

10<sup>o</sup>  
urte



2010

EUSKAL HERRIKO MUNDU MARTXA

## **SASI GUZTIEN GAINETIK**

Aniztasun etnikoaren ezaugarria ere barneratzen du egungo gizarteak. Ondorioz, ikastetxeetan derrigorrezkoa egiten da “kulturarteko pedagogia” kontzeptuaren erabilpena eskoletako irakaskuntza lana eta kultur aniztasuna bateragarri egiteko. Bateratze horretan irakaskuntza prozesuak aniztasuna errespetatu eta bazterkeriarik gabeko eredu hezigarri-kohezigarri batean oinarritze aldera ekarpenak burutzen ditu.

Kulturartekotasunak, inklusioak, eta bizikidetzak berdintasunean, begirunean, tolerantzian, elkartasunean, onarpenean eta duintasunean hezteko premia dute. Balio hauek guztiak indartu beharra dago berdintasunezko eta bidezko gizarte eredu lortze aldera.

Berdintasunerako hezkuntza lortzeko, emozioei eta sentipenei leku egiten dien metodologia ireki eta sortzaile batean oinarritzea ezinbesteko baldintza da. Elkarrizketa, harreman afektiboak, begirunea eta lankidetzak sustatu beraz, eredu lortzen hezkuntza eredu hain zuzen ere.

Escoletan, desberdintasun etnikoak, kulturalak, ideologikoak eta erlijiozkoak errespetatuz baloratu behar dugu aniztasuna. Ikasleei eskaintzen zaizkien eredu sexistak orekatzeko, alde batetik eta komunak diren interesak garatu eta indartzeko bestetik, baterako hezkuntza/kohezkuntza sustatu eta baloratu behar dugu.

Balioetan heztea orokorrean eta **BATERAKO HEZKUNTZA/KOHEZKUNTZA** bereziki, ezin dira borondate edo gogoaren esku utzi. Ohiko hezkuntza sisteman, itxura batean, sexu/genero bereizketa ez da eman. Neska-mutilentzako bereiztutako curriculumak bateratzeak, ustezko bateratzea baino ez du ekarri, hezkuntza sisteman ematen den generozko trataera desberdina ezkutuan utzi baitu. Hori dela eta, egoera ikusgarri bihurtzea premiazkoa da, generozko bereizkeriak ikusgai ipiniz hauek betiereko bihurtzen dituzten mekanismoak desegiteko.

Honengatik guztiarengatik datorren martxoaren 8an eta Emakumeen Mundu Martxaren aitzakian unitate didaktiko honen helburua emakumeen aniztasuna ikusgarri bihurtzea eta beronen ezagutza sakontzea litzateke. Emakumeen aniztasunaren sorrera hainbat irizpideren menpe dago: jatorria, azalaren kolorea, barneratuak dituen ezaugarri kulturalak, sinismenak edota berauen ezak, burutu duen aukera sexualak...

## **ABIAPUNTUA**

Unitate honen abiapuntua STEE-EILASen kartela izatea proposatzen dizuegu.

## **HELBURU OROKORRA**

Munduko lurralde desberdinetako emakumeen ezaugarri eta egoeraz gogoeta egitea, hauen rola, bizimoduak, borrokak eta aldarrikapenak aztertuz, emakume izateagatik herrialde desberdinetan pairatzen den diskriminazioaz ohartzeko.

## **HELBURU DIDAKTIKOAK**

- Munduko lurralde desberdinetako emakumeen bizimodua aztertu, hauei buruzko informazioa jasoz, berdintasun eta desberdintasunez jabetzeko.
- Munduko lurralde desberdinetan emakumeek jokatzen dituzten rola aztertu, lanean, familian, kulturen, hezkuntzan... betetzen dituzten zereginak identifikatuz, lurraldeen arabera desberdintasun nabarmenik dagoen ondorioztatzeko.

## **OINARRIZKO GAITASUNAK**

- Kultura humanistikorako gaitasuna.
- Gizarterako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.

## **EDUKIAK**

- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertze eta adierazteko trebeziaren garapena.
- Adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Emakumeen egoerei buruzko sentsibilizazioa.
- Elkar lanerako eta lankidetzarako jarrera.
- Besteen lekuan jartzeko gaitasuna.
- Desberdinekiko begirunea.
- Irizpide kritikoz jokatze ahalmena.
- Munduko emakumeak.
- Emakumeen bizimoduak.
- Emakumeek betetzen dituzten rola.
- Emakumeen eskubideak.

## **JARDUERAK**

### **HH eta LH lehen zikloa**

#### **1. IDEIA ZAPARRADA**

**Materiala:** STEE-EILAS-en kartela, munduko mapa.

**Denbora:** Saio bat.

**Taldekatzea:** Talde handia.

**Garapena:**

1. Ikasleek kartelean ikusten dutena ahoz iruzkindu.
2. Kartelean azaltzen diren emakumeak nongoak izan daitezkeen aurreikusi eta adinaren arabera kontinentetan edo herrialdetan kokatuko dituzte.
3. Karteleko emakume batzuen jatorria asmatu ondoren, beraiei buruz uste dutena edo dakitena adieraz dezatela ikasleek.

#### **2. MAHAI INGURUA**

**Materiala:** Arbela, papera, arkatza.

**Denbora:** Bi edo hiru saio.

**Taldekatzea:** Talde txikiak eta talde handia.

**Garapena:** Aurreko jarduerari jarraipena emanez, talde handian ea jatorri desberdinetako emakumeak ezagutzen dituzten hitz egingo da. Baiezkoa bada emakume horien zerrenda egingo da arbelean eta galdetegi bat prestatuko da beraien kulturako emakume eta neskatoen bizitzari buruz (egunerokotasuna, hezkuntza, rolak, aldarrikapenak...). HHko ikasleekin galdetegia talde handian egingo da; LHko mailetan talde txikiak egingo dira, galdetegia prestatuko dute eta ondoren galdetegi guztiak elkar jarriko dira.

Ahal bada, ikastetxera etortzeko eskatuko zaie eta beraiekin elkarrizketa egingo da. Bukaeran ondorioak aterako dira kultura desberdinetan emakumeen bizimoduak zertan duten antza eta zertan bereizten diren ondorioztatuz.

**Aldaera:** Inguruan ez balego beste kulturetako emakumerik informazioa baliabide materialen bidez aterako da. Talde txikiak egin eta talde bakoitzak karteleko emakume bat hartuko du bere kulturako emakumei buruzko informazioa jasotzeko. Ondoren informazioa talde handian elkar jarriko da eta ondorioak aterako dira kultura desberdinetan emakumeen bizimoduak zertan duten antza eta zertan bereizten diren ondorioztatuz.

#### **3. MUNDUKO EMAKUME-NESKEN LIBURUA**

**Materiala:** Aldizkariak, argazkiak, STEE-EILAS-en kartela, papera, kola, guraizeak.

**Denbora:** Hainbat saio.

**Taldekatzea:** Bakarka, talde txikia eta talde handia.

**Garapena:** Ikasleei esango zaie munduko lurralde desberdinetako emakumeen liburua egingo dugula eta horretarako irudiak behar ditugula, ahal bada ekar ditzatela. Talde txikiak egingo dira eta irakasleak edo beraiek ekarritako materialetik emakumeen irudiak moztuko dituzte. Gero, talde handian, dituzten irudiak aztertu eta ahal denik eta aniztasun handiena azaldu dadin liburuan ze irudi jarriko duten adostuko dute.

Irudiaren tamainaren arabera argazki bat edo bi jarriko dituzte orri bakoitzean, kontutan izanik ondoren ere idatzi egin beharko dela.

#### **4. ALDARRIKAPENAK**

**Materiala:** Papera, arkatza.

**Denbora:** Saio bat edo bi.

**Taldekatzea:** Talde txikia eta talde handia.

**Garapena:** Talde txikiak egingo dira eta talde bakoitzak unitatean zehar ezagutu diren lurralderen bateko emakume bat aukeratuko du. Emakume horren bizimodua kontutan izanik bere lekuan jarriko dira eta bera izanez gero ze aldarrikapen egingo luketen adieraziko dute. Aldarrikapen guztiak jasoko dituzte eta talde handian azalduko dizkiete gelakideei.

Egindako liburuan aldarrikapenak jarriko dituzte dagokion emakume-neskaren inguruan.

#### **LH eta BH**

##### **1. IDEIA ZAPARRADA.**

**Materiala:** STEE-EILAS-en kartela, post-itak, boligrafoa edo arkatza.

**Denbora:** Saio bat.

**Taldekatzea:** Talde handia.

**Garapena:**

1. Irakasleak ikasle bakoitzari 2 post-it banatuko dizkio.
2. Arbelean STEE-EILAS-en kartela jarriko du.
3. Pentsatu gabe, ikasleek kartela ikusterakoan zer datorkien burura bi hitz edo esaldietan post-itetan idatziko dute.
4. Irakasleak jaso eta irakurri ondoren arbelean itsatsiko ditu. Itsasterakoan sailkapen mota desberdinak egin ditzake:
  - Gizarte arloarekin lotutako hitzak edo esaldiak zutabe batean: lurralde desberdinak, arraza, munduaren banaketa..., eta beste zutabeen argazkia ikusterakoan sortutako emozioak.
  - Ideia materialak: janzkera, dirua, ogibidea... alde batetik eta sozialak bestetik: desberdintasunak, pobrezia, aberastasuna....
5. Ideia guztiak irakurri eta gero ondorioak aterako dira.:
  - Zer ezagutzen duten emakumeen egoeraz lurralde desberdinetan.
  - Berdinak gara guztiak? Zergatik? Bidezkoa al da? Zein da gure papera?....
  - Lurralde horietako emakume ospetsurik ezagutzen dute?
  - Ze informazio jasotzen dugu lurralde horietako emakumeei buruz?
6. Ondorioak atera eta gero, artikulua bat idatzi daiteke edo mahai inguru edota debate bat egin. Horretarako ikasleek dokumentazio gehiago beharko dute: Internet, aldizkariak, prentsa....

## 2. EMAKUMEAK MUNDUAN

**Materiala:** STEE-EILAS-en kartela, munduko mapa mutu bat, folioak, rotuladoreak, boligrafoa edo arkatza.

**Denbora:** Bi saio.

**Taldekatzea:** Talde txikia eta talde handia.

**Garapena:** Mundu mapa mutu batean kontinenteak identifikatuko dituzte eta kartelego emakumeen ezaugarri fisikoak kontuan izanik, mapan kokatuko dituzte. Ondoren emakume ezberdinen informazioa jaso eta mapan bertan itsatsi. Pausuak hurrengoak izan daitezke:

1. Irakasleak ikasleak 4-5 laguneko talde txikitik banatuko du, talde bakoitzean idazkari bat izendatuko delarik.
2. Arbelean STEE-EILASek proposatutako kartela jarri. (Lana errazteko kartelaren kopiak egin daitezke eta taldeetan banatu).
3. 5-10 minututan ikasleek pentsatu behar dute emakume bakoitza nongoa izan daiteken.
4. Folio txuri batean idazkariak emakume bakoitza lurralde batekin lotzeko arazoak jasoko ditu: arraza, janzkera....
5. Mapa mutuan talde bakoitzak kokatuko ditu emakumeak.
6. Talde bakoitzak 3-4 emakume hartuko ditu eta bakoitzaren bizimodua deskribatzen saiatuko da: bizilekua, lanbidea, familia mota... (Emakume horren bizitzako egun bat idaztea ere beste alternatiba izan daiteke).
7. Talde handian komunean jarriko dira biografia guztiak. Ikasleak bizimodu desberdin horiek arrazonatzen saiatuko dira.
8. Azaldutako guztiarekin ondorioak atera daitezke: bizimodu oso desberdinak daudela, zergatik ematen ote diferentziak, ona ala txarra ote den, zer egin daitekeen egoera desberdin horien aurrean....

## 3. EMAKUME-NESKEN EGOERA AZTERTUZ

**Materiala:** Internet ( [www.prb.org/pdf05/womenofworld05\\_SP.pdf](http://www.prb.org/pdf05/womenofworld05_SP.pdf))

**Denbora:** Bi edo hiru saio.

**Taldekatzea:** Talde txikiak eta talde handia.

**Garapena:** Jarduera honetan lurralde desberdinetako emakumeen egoera aztertuko da, horretarako iturri desberdinak erabili daitezke: Internet, prentsa, aldizkariak, publikazio desberdinak, Emakundeko materiala, ONGak.... Taula eta estatistika desberdinak aterako dira. Goiko helbidean datu estatistiko multzoa aurki daiteke.

- Emakumeen ogibide nagusiak lurraldeen arabera.
- Lurralde desberdinetako jaiotze-tasa.
- Lurralde desberdinetako per capita errenta eta honen eragina emakumeenganako.
- Emakume heriotza-tasa
- Ikasketak, bigarren mailako ikasketak burutzen duten emakume kopuruak. Aukeratutako ikasketa mota...
- Emakumeen gaixotasunak eta lurraldeekiko lotura....

Ondorioak atera eta gero prentsa artikulua bat idatzi eta komunikabide desberdinetara bidali.

#### **4. EMAKUMEEN MUNDU MARTXA**

**Materiala:** Euskal Herriko mapa.

**Denbora:** Martxak irauten duen egun kopurua.

**Taldekatzea:** Talde txikiak eta talde handia.

**Garapena:** Ikasleei azalduko zaie aurten Emakumeen Mundu Martxa ibiliko dela munduan zehar emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapenak eginez eta Euskal Herrian ere gauzatuko dela ibilaldia martxoaren 8tik 13ra.

1. Euskal Herriko mapan egunez egun Emakumeen Martxaren ibilbidea markatu.
2. Talde txikiak egingo dira eta bakoitzari jarraian dauden bi edo hiruna eskubide banatuko zaizkio.
3. Ondoren eztabaidatutakoaren berri emango zaie kideei talde handian.
4. Bukatzeko emakumeen eskubideekin lotutako horma-irudi bat egitea proposatuko zaie.

#### ***Eskubide zerrenda:***

- *Emakumeak izateagatik gure kontrako biolentziarik ez jasateko eskubidea.*
- *Jendarteko edozein arlo eta jardueretan aktiboki parte hartzeko eta aintzat hartuak izateko eskubidea.*
- *Lana baldintza duinetan burutzeko eskubidea.*
- *Zainduak izateko eta emakumea izateagatik etxeko eta zaintza lanak egitera behartuak ez izateko eskubidea.*
- *Laguntza sozialak eta ekonomikoak jasotzeko eskubidea, hauek famili unitatepean egon barik.*
- *Duintasunez bizitzeko eskubidea, gure bizitzako etapa bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuz.*
- *Elikadurarako, elikagaiak ekoizteko modua erabakitzeko eta duintasunez ekoizteko eskubidea.*
- *Gure identitate sexuala edozein izanda ere, sexualitatea askatasunez bizitzeko eskubidea.*
- *Gure gorputzaren inguruan askatasunez aukeratzeko eta erabakitzeko eskubidea.*

#### ***Euskal Herriko martxaren ibilbidea:***

Martxoak 8: Iruña.

Martxoak 9: Iruña, Altsasu, Lizarra, Agurain, Gasteiz.

Martxoak 10: Gasteiz, Laudio, Ezkerraldea, Eskumaldea, Bilbo, Zornotza.

Martxoak 11: Ermua, Urola Kosta, Beasain, Tolosa, Donostia, Errearteria.

Martxoaren 12a: Errearteria, Irun, Hazparne, Baiona, Leitza.

Martxoaren 13a: Iruña.

## **EBALUAZIOA**

Unitatea lantzen den bitartean etengabeko ebaluazioa egingo da besteak beste, behean aipatzen diren teknika eta tresnak erabiliz.

Unitatea bukatzean berriz, ikasleen lana baloratu da markatutako irizpideak jarraituz. Ikasleek ere beraien auto-ebaluazioa eta unitatearen ebaluazioa egin dezakete.

### **Ebaluazio irizpideak:**

- Ea munduko lurralde desberdinetako emakumeen bizimoduez jabetu den.
- Ea emakumeek pairatzen dituzten diskriminazioez ohartu den.
- Ea gaiarekiko interesik azaldu duen.
- Ea besteen irizpideak errespetatuz talde lanean jarduteko gai izan den.

**Ebaluaziorako teknika:** Behaketa

**Ebaluaziorako tresnak:**

- Irakaslearen egunerokoa
- Portfolioa: Ikasleen lanen balorazioak eta egindako lanen aukeraketa esanguratsua jasotzen duen karpeta. Ikasle bakoitzaren historia izango da.

**Ikasleen ebaluazioa unitatearekiko:**

Elkarrizketarako gidoia:

- Zer da gehien eta gutxien gustatu zaiena eta zergatik?
- Zer da ikasi dutena?
- Zerk harritu ditu gehien?

**Jardueren ebaluazioa**

Jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera beraren ebaluazioa egingo dugu, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu dugun gela, denbora, ikasleak motibatuta egon diren...guzti hau, behar izanez gero, hurrengo jarduerarako praktika egokitu eta unitatearen bukaeran ezarritako helburuak bete ahal izateko.

**BALIABIDEAK:**

- <http://2010emakumeenmundumartxa.blogspot.com>
- <http://Kulturantzekoemakume.blogspot.com>
- [www.mujaresdelmundo.es](http://www.mujaresdelmundo.es)
- [www.mujaresporunmundomejor.org](http://www.mujaresporunmundomejor.org)
- [www.mujaresquecambianelmundo.org](http://www.mujaresquecambianelmundo.org)
- [www.prb.org/pdf05/womenofworld05\\_SP.pdf](http://www.prb.org/pdf05/womenofworld05_SP.pdf)